



74 Zka. MARTXOA 2019 MARZO Nº 74

Lagun agurgarriak

Martxoaren azken asteburuan Elkargoaren Ohiko Batzar Nagusia eta Hauteskundeetako Ezohiko Batzar Nagusia egingo dira. Lehenengoan 2018ko Elkargoaren memoria eta kontuen balantzea aurkeztuko dira. Eginkizun asko burutu dira baina Gobernu Batzordekoek honako elementu hauek aipatu nahi ditugu:

- Elkargokide kopurua etengabe handitzearen joera (764 elkargokide) gure lanbidea elkarrekin eraikitzeko hainbat profesionalen arduraren seinale.
- Burututako prestakuntza ekintzen asebate maila handia.
- Deontologia eta Sorroaren Dekretoaren Batzordeak osatzen dutenek egiten duten lan handia.
- GHEE-CEESPVren izenean foro eta instituzio esparruetan parte hartu duten pertsona guztien parte-hatzea.
- Kontseilu Nagusiak Gizarte Hezkuntza Legearen alde egiten ari den lan izugarria.

Bigarren batzarrean, aurkeztutako hauteskunde-zerrendak 2019-23aren Plan Estrategikoa eta Urteko Plana eta Aurrekontua aurkeztuko ditu. Estrategi ildoak azalduko dira, eta, batez ere, lanbidea eraikitzen nahi duen elkagokide oro parte-hatzeko atea zabalik izango duela azpimarratuko da.

**GIZARTE HEZITZAILEEN ELKARGOEN
KONTSEILU NAGUSIA**



2019ko GHEKNko Ohiko Batzar Nagusia otsailaren 9 eta 10ean egin zen. Gure Elkargoko ordezkariak, lana kontuak medio, ezin ziren bertaratu.

[Familia laguntza gabeko adintxikiko migratzaientzako arretari buruzko Komunikatua](#)

Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioan bilera

Martxoaren 11n GHEKNk Ministro eta bere lan taldearekin izandako bileran gure lanbidearen egoerari buruzko ardura jakinarazi eta Gizarte esku-hartzeko lanbideen erregulatzeko beharra adierazi zieten.

Intrusismo eta lan prekarietate handia dagoela azaldu zieten, zerbitzuen kanporatze eta pribatizazioaz gain; era berean, aurrezteko eginten diren azpikontrataziok gizarte hezkuntza esku-hartzearen kalitatea gutxitzen dutela esan zieten.

GCGEESek ere, familia laguntza gabeko adintxikiko migranteen egoerari erantzuteko antola

GIZARTE HEZITZAILEEN ELKARGOEN KONTSEILU NAGUSIA



tutako larrialdiko dispositiboaren gaineko kezka, Haur eta Nerabeen Babesa Legea bete behar baitute.

Ministroak, adintxikiko arretaren zailtasuna kontuan izanda, lanbidearen profesionalizazioaren beharrarari buruzko interesa adierazi zien.

GHEE-CESPVREN BERRIAK

2019/01/16, 02/19 eta 03/20 Etika eta Deontologiaren Batzordearen bilerak

2019/01/25 Vitoria-Gasteizko Udalako Gizarte Zerbitzuen Zuzendariarekin bilera udalaren gizarte-hezkuntza proiektuari eta gizarte hezitzaileen lanbide figurari buruz.

2019/02/03 "Mas que palabras" Radio Euskadiko irratsaioan disziplina anitzeko ikuspegi-tik gazteri bortizkeriari buruzko mahai inguruan parte-hartzea.

2019/02/07 Gizarte Inklusio esku-hartze espezializautaren Dekretuaren zirriborroari Bizkaiko Aldundiko Enplegu, gizarte inklusio eta berdinketa Sailari ekarpenak bidali

2019/02/08 Egoitza harrerako babesgabeko adintxikiko eta bertan lan egiten duten gizarte hezitzaileen egoerari buruzko bilera Arabako FA.ko Gizarte Zerbitzuetako Zuzendari eta GOFeko Gerentearekin

2019/02/21 Arabako FA.ko Gizarte Zerbitzuetako Lurralde Kontseiluko urteko bileran Elkargoko ordezkaria parte hartu zuen.

2019/02/26 Egoitza harrerako babesgabeko adintxikiko eta bertan lan egiten duten gizarte hezitzaileen egoerari buruzko bilera Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politikako Sailburordearekin.

2019/02/27 Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistemako Prestakuntza eta Zerbitzuen Zorroaren Batzordearen bilera.

LANBIDEAREKIKO INFORMAZIOA

**AUTOZAINKETARAKO TRESNAK EXIGENTZIA GUTXIKO
GIZARTE ETA HEZKUNTZA ESKU-HARTZEAN**

Gizarte zerbitzuen erabiltzaileen profila, zerbitzu hauek eguneko zentroak edo egoitzak diren aldetik, aldatu egin da azken urteotan. Pertsona hauek dituzten arazoak dibertsifikatu egin dira hainbat arlori dagokionez: kultura eta jatorria, kontsumo edo adikzio ereduak, dituzten patologia, jasaten duten kalte fisiko eta mentala, e.a. Sarritan, bertan artatutako pertsonak ibilbide luzea egin dute beste baliabide batzuetan, euren birgizarteratze prozesuek ez dute arrakastarik izan eta gorputz eta buru narriadura maila larrietara iritsi dira.

Gizarte zerbitzuetan, *exigentzia gutxiko zerbitzuen* "birmoldaketa" deitu genezakeenera iritsi garela esan dezakegu. Gero eta inklusiboagoak izan eta estaldurak biztanleria sektore guztietara zabaltzeko asmoz, gizarte-baliabideetan onartuak izateko irizpideak malgutu egin dira, eta exigentzia maila jaitsi. Hori guztia erronka handia da exigentzia baxuko eta intentsitate altuko baliabide hauetan lan egiten duten profesionalentzat. Ohiko bizimodura eta gizarte- eta hezkuntza-ekintzetara egokitzeko zailtasun handiak dituzten pertsonekin batera bizi dira astean 7 egunetan eta egunean 24 orduetan. Hezitzaileek, nolabaiteko ezintasunez, euren rola hezitzailea baino gehiago asistentziakoa dela sentitzen dute. Profesionalaren eta erabiltzailearen arteko harremana ahuldu egiten da eta gatazkak sortzea errazagoa da. Horren ondorioz, nahi baino gehiagotan, jokabide bortitzak sor daitezke. Ondorioz, profesionalengan akidura sortzen da eta, etsituta, euren osasun fisikoa eta mentala ere ahuldu egiten dela ikusten dute. Aldatzen ari al da esku-hartze eredu? Zein tresna dituzte profesionalak erronka horiei aurre egin eta erre edo gaixotu gabe jarraitzeko?

Bilboko Udaleko Osasun eta Kontsumo Saileko Drogamenpekotasunen Negoziatuak 13 urte daramatza baliabide hauetan lan egiten duten profesionalentzat ikastaroak antolatzen. Ediren osasun-kooperatibak ematen ditu eta laguntza tresna horiek eman eta hainbesteko kalterik gabe eragingarriak izan daitezen bilatzen dute.

Ikastarootan baliabide horien barruan profesionalaren eta erabiltzailearen artean sortzen den harreman dinamika lantzen da. Pertsona arteko lotura emozionala hartzen da lan-tresna garrantzitsuentzat. Testuingurua hezkuntzakoa izan edo asistentziakoa izan, pertsona artean sortzen den harreman estuak eragingo du, batez ere, esku-hartzearen eragingarritasunean. Bereziki exigentzia gutxiko inguruneetan, garrantzitsuagoa da gauzak *nola* egiten ditugun *zer* egiten dugun baino. Egiteko moduak garrantzi handiagoa du egiten dugunak baino. Sukaldean edo lantegian, erabiltzaileek leku emozional jakin batean jartzen dituzte profesionalak, eta eurengan jartzen dute harremanetarako aurreikuspen bat; horri deitzen diogu *Transferentzia*. *Badirudi haien ama, polizia, lankidea edo neska-meia naizela*, esan ohi dute profesionalak ikastaroetan. Erabiltzaileak amaren lekuan jartzen banau, nigandik espero duen harreman mota ez da poliziaren lekuan jartzekotan sortzen den harreman mota. Erabiltzaileek profesionalengan jartzen duten "itxaropenak"

LANBIDEAREKIKO INFORMAZIOA

erantzun emozionalak sorrarazten ditu eurengan, eta horiek bat etortzen dira *Kontratransferentzia* deritzegun leku horiekin. Zilegi da psikoterapiaren esparru klinikoan urte askoan aplikatzen ari diren kontzeptu horiek gizarte- eta hezkuntza esku-hartzeetara ere hedatzea aipatzen ari gareneko ingurune hauetan, ezartzen diren pertsona-arteako loturak askoz es-tuagoak eta gatazkatsuagoak baitira gizarte- eta hezkuntza-esparruan esparru terapeuti-koan baino.

Hezitzaileek galdera bat egiten diote euren buruari: Noraino inplikatu behar dut emozionalki erabiltzaileekin? Horietako askorekin hamarkadak daramatzate egoera zailetan elkarbizitzen eta inplikazio emozionala ekidinezina da. Asko inplikatzeko banaiz, mina hartu eta erre egiten naiz, eta distantzia hartzen badut gizatasuna eta eurengan eragiteko gaita-suna galtzen ditut. Zein da distantzia egokia, *distantzia eragilea* deritzona? Nola kudeatzen ditut eurengana sentitzen ditudan era guztietako emozio indartsuak? Ez al naiz profesional ona ezin baditut emozio horiek kontrolatu?

Sarritan ikusten dugu profesional berriak asko inplikatzeko direla; askotan erre egiten dira eta, urteak joan urteak etorri, kailu emozionala egiten zaie, hau da, babes ezkutu edo oskol bat, etsipenean eta jasateko gaitasunean oinarritutakoa. Aipatutako ikastaroetan, *Transferentziaren* eta *Kontratransferentziaren* irakurketa zein den erakusten dugu; izan ere, hori da inplikatzeko eta minik ez hartzea ahalbidetzen digun tresna. Emozioen kudea-ketan, *mainak indarrak baino gehiago balio du*; ez da autokontrol kontua edo jasan behar izatearena: ikasi egin behar da ulertzen erabiltzaileek non jartzen nauten eta ni, konturatu gabe, non jartzen naizen, askotan hori gizarteak edo instituzioek jarritako rol baten men-pekua izaten baita.

Proposatzen duguna ez da lan erraza. Norbere inplikazio maila handia eskatzen du eta prestakuntzarako eta gainbegiraketarako espazioak, eta horrek beti eskasa izaten den denbora inbertsio handia eskatzen du. Lanbidearen eta norberaren planoak estuki nahas-ten dira. Hala ere, gure ustetan, baliabideen eguneroko jardunean inplikazio hori handia izaten da, baina profesionalak "berez" egiten dute hori, kanpoko inolako laguntzarik gabe. Irakurketa horiek egiten ikasitakoan, exigentzia gutxiko baliabideetan lan egiteak akidura eta erresumin gutxiago sorrarazten du, eta norbere burua ezagutzeko eta pertsonalki eta profesionalki aberastasun maila handiagoa lortzeko iturri on bat eraikitzen da. Lan honetan jarduten duten, baina inoiz nabarmentzen ez diren, pertsona eta profesional handiak ber-taratzen dira urtero ikastaro hauetara.

Enrique Saracho, psikiatra, psikodramatista, Ediren osasun-kooperatibako zuzendari teknikoa. Gasteiz, 2019/03/15

Gai honi buruzko kontsulta edo ekarpenen bat egin nahi baduzu, bidali mezu bat gure pro-fesionalen taldeari: kooperatiba@ediren.com www.ediren.com

EKARPENAK

STALKING EDO JAZARTZEARI BURUZKO ARTIKULUA

Gizarte-hezitzaile gisa eguneroko zeregin profesionalean aurki ditzakezuen jarduera ez-zilegi penalen gaineko zuen ezaupideak finkatze aldera, GHEEko AJkoek ohar txiki batzuk egin nahi dizkizuegu jazarpenaren gainean. Hori, Auzitegi Gorenaren 2017ko maiatzaren 8ko epaia (324/2017) oinarritzat hartuta, delituaren osagaiei buruzko funtsezko dotrina bat ezarri baitzuen. Derrigortze-delituaren modalitate bat da, Zigor Kodean 2015eko erreforman sartutako *jazarpen-gertakariari* aurre egiteko ohiko tipoak osatzen dituen, tipo horiek ez baitira nahikoa.

Lau ohar hauek hartu behar ditugu kontuan batez ere:

- a) Jarduerak etengabea izan behar du.
- b) Behin eta berriz gertatu behar du.
- c) Tipoaren elementu negatibo gisa, ezinbestekoa da subjektu aktiboak horretarako legezko baimena ez izatea.
- d) Biktimaren eguneroko bizimodua larriki aldatu behar du.

Izan ere, Zigor Kodearen 172 ter 2 artikulua honako hau dio: «1. Hiru hilabetetik bi urte arteko espetxe zigorra edo sei hilabetetik hogeita lau hilabete arteko isuna ezarriko zaio pertsona bati behin eta berriro jazartzen zaionari, legez baimenduta egon gabe, honako jokaera hauetako bat izaten badu, eta jokaera horrek haren eguneroko bizitza era larrian nahasten badu:

1.a) *Pertsona bat zelatatzea, hari segika ibiltzea edo harengana fisikoki hurbiltzeko aukerak bilatzea.*

2.a) *Edozein komunikazio-bideren bidez edo hirugarren batzuen bidez, pertsona harekin harremanetan jartzea edo jartzen saiatzea.*

3.a) *Pertsona horren datu pertsonalak bidegabe erabiliz, produktu edo salgaiak eskuratzea, zerbitzuak kontratatzea, edo hirugarren pertsona batzuk harekin harremanetan jarraraztea.*

4.a) *Pertsona horren askatasunaren edo ondarearen aurka atentatzea, edota haren pertsona hurbil baten askatasunaren edo ondarearen aurka.»*

Legezko oinarri hori kontuan hartuta, Auzitegi Gorenak (zigor-arloko sala) dio ez dela zentzuzkoa (eta ezta egokia ere) intrusio-ekintza kopuru gutxienerako bat jartzea, definizio batzuek dioten bezala, eta ezta gutxienerako aldi bat zehaztea ere. Ordea, Zigor Kodearen 172 ter artikulua azaldu bezala, delituak *iraunkorra* izan behar du, orduan duelako eragina eguneroko bizimoduan eta adierazten delako frogatutako egitateetan *biktimaren eguneroko ohituretan eragin* zehatzak dituela.

EKARPENAK

Gainera, honako hau azpimarratu beharra dago, Leongo PAren urriaren 20ko autoan bezala (auto horrek emakume batek jarritako salaketa aldi baterako artxibatzeke erabaki atzera bota zuen; emakumeak azaldu zuen berriz kobratzeko enpresa batek telefonoz eta idatziz jazartzen zuela, behin eta berriz, mailegu bat itzul zezan): batetik, jazarpena etxe-ko indarkeriaren alorren gertatu ohi den arren, gainerako bizimodua erasotzen duten jazarpen-egoerak beste esparru batzuetan ere irudika ditzakegu; eta bestetik, delitua ez dago antolatu beharrik, baina ekintzen sekuentzia metodikoa izan ohi da eta, ondorioz, biktimak, ihes egiteko modu bakar gisa, eguneroko ohiturak aldatu behar izaten ditu (adibidez: telefonoa, ibilbideak, ohiturak, aisiarako tokiak eta abar).

Delitu horrek barne hartzen dituen portaerak gutxitzea lortuko dugulako itzaropena dugu (berdin du nork gauzatzen dituen) eta, horretarako, zuen eskura gaude GHEEko Zerbitzu Juridikoan.

Severino Setien
Letradua
GHEE-CEESPVko Zerbitzu Juridikoa

INTERESGARRIKOAK

**Un lugar en el mundo**

David Román.

Serie Educación Social.

Nau Llibres.

No trata de conflictos en centros de protección a la infancia, de su gestión ni de su prevención. No habla de construir vínculos ni de convivencia, ni tampoco de infancias y adolescencias maltratadas o en situación de desamparo. Este libro

aborda todas estas cuestiones y muchas más.

PREMIO JOAQUIN GRAU I FUSTER DEL CEESC



Paternidades positivas: Cambios y retos en la implicación de los padres en la crianza y la coresponsabilidad. Informe de resultados = Aitatasun positiboak: Aldaketak eta erronkak aitek haurren hazkuntzan eta erantzunkidetasunean duten

inplikazioan. Deustoko Unibertsitatea. Emplegu eta Gizarte Politikako Saila, Eusko Jaurlaritzako-Gobierno Vasco, 2016, 75, 96 p.



Claves de acción socioeducativa para promover la participación de las familias en procesos de acogimiento

M. Àngels Balsells Bailon, Aida Urrea Monclús, Carmen Ponce Alifonso, Eduard Vaquero Tió, Alicia

Navajas Hurtado **Educación XX1 UNED**

El enfoque de la parentalidad positiva está contribuyendo a cambiar el modelo de intervención en el Sistema de Protección a la Infancia y a la Adolescencia. Desde este enfoque, la participación de la familia biológica se contempla como un elemento esencial que facilita la vuelta a casa de los hijos, promueve la implicación de los padres y ayuda a incrementar su conciencia sobre los motivos reales de la separación.



REVISTA
DE EDUCACIÓN
SOCIAL

Número 28, Educación Social, medio ambiente y sostenibilidad



Erresilientzia, ahalduntzea eta gizarte-hezkuntza

Ruiz Narezo, M eta Fonseca Peso J. Zerbitzuak 67

Hirugarren sektorean lanean jarduten dugun profesionalok paradigma-aldaketa bizitzen ari gara. Aldaketa horretan, lagun-egite hezigarriaren garrantzia argi ikusten da, baita talde-lanarena ere, beti ere erabiltzailearen eskuartzea ikuspegi sistemikotik hartuta. Ikuspegi hau osatzeko, erresilientzia eta ahalduntze kontzeptuak azpimarratu nahi ditugu.



Claves metodológicas para la acción socioeducativa en lonjas juveniles.

Alonso, I, Berasategi, N y Crespo, F, Zerbitzuan 67

Este artículo se centra en la acción socioeducativa en el emergente fenómeno de las lonjas juveniles como espacio autogestionado de ocio y tiempo libre en el contexto del País Vasco. La investigación ha pretendido identificar una serie de claves metodológicas para la Administración, los programas socioeducativos y educadores a la hora de intervenir satisfactoriamente en estos espacios, u otros similares.

URRENGO BOLETINETAN SARTZEKO PROPOSAMEN ETA IRADOKIZUN ceespv@ceespv.org RA BIDALI AHAL DITUZUE. ERA BEREAN, ZUEN INTERESEKOA DEN EDOZEIN ESPARRUTAN PARTE HARTZEKO GUREKIN HARREMANETAN JAR ZAITEZTE.